

Bilera



Ostiralero, bilera bat egingo dugu astea nola joan den ikusteko.

Arau hauek beteko ditugu:

1. Moderatzaile bat hautatuko dugu bilera bideratzeko, eta idazkari bat, oharrak hartzeko.
2. Besoa altxatuko dugu hitz egin nahi dugun bakoitzean, eta moderatzaileak hitza eman zain geratuko gara.
3. Adi eta arretaz entzungo dugu ikaskideek esaten dutena.
4. Ikaskideak esaten duenarekin ados ez bagaude, gure txandaren zain egongo gara iritzia emateko.

Zein da ohar horren helburua? Markatu.

- ☐ Guraso-bilera baten berri ematea.
- ☐ Bileren arauak azaltzea.
- ☐ Jolas baten arauak azaltzea.

Adierazi ea esaldi hauek zuzenak (Z) ala okerrak (O) diren.

- ☐ Nahi dugunean hitz egin dezakegu.
- ☐ Adi entzun behar da ikaskideek esaten dutena.
- ☐ Moderatzaileak oharrak hartuko ditu.
- ☐ Norbaitekin ados ez bagaude, gure txandaren zain egon beharko dugu zerbait esateko.

Zertarako egiten dira bilerak? Osatu testua, hitz hauek erabilia.

ikaskide

haserretzen

gelako

erabakiak

txandak

Gure _____ bileran, _____
guztioak hartzen ditugu _____, eta
ados jartzen gara. Hitz egiteko
_____ errespetatzen ditugu, eta
ez gara _____, iritzi desberdinak
izan arren.